



Sociedad Española de Astronomía

25 / 05 / 2023

Gar eta Su, planeta sistema baten izen berriak euskal proposamen bati esker

Nazioarteko Astronomia Batasunak bi izar eta haien planetak izendatu berri ditu Euskal herriko eta Balearretako kultura tradizioaletako izendapenekin

- **Nazioarteko Astronomia Batasunak bi izar eta haien planetak izendatu berri ditu Euskal herriko eta Balearretako kultura tradizioaletako izendapenekin.**
- **GJ 486 sistemak 'Gar' eta 'Su' izenak hartu ditu, eta WASP-166 sistemak 'Filetdor' eta 'Catalineta'.**

Orain arte GJ 486 bezala ezagutzen zen izarra eta bere planeta laster 'Gar' eta 'Su' euskal izenarekin izango dira ezagun mundu osoan. WASP-166 sistemak, bere aldetik, 'Filetdor' eta 'Catalineta' izenak jasoko ditu, Mallorcako ahozko tradizioan oinarrituta. Izendapen horiek Nazioarteko Astronomia Batasunak aukeratu ditu Name ExoWorlds 2022 lehiaketaren harira, eta oraintsu egin dira publiko.

Name ExoWorlds 2022

Nazioarteko Astronomia Batasuna (NAB) da planeten eta izarren izendapen ofizialaz arduratzen den nazioarteko erakundea. Aspalditxoan abiatu zuen erakunde horrek inguruan planetak dituzten hainbat izarri izen naturalak emateko prozesua, zenbakizko kode gogaikarri eta ahoskatzeko eta gogoratzeko zailak diren izenetara jo behar izan gabe. Aldi berean, izenak aukeratzeko prozedurak herritarren parte-hartzea sustatzen du; horrek bide berriak irekitzen baititu astronomia-jakintzaren hedapena esanahi kulturala duten izenekin lotzeko.

Izendapen-prozesua deialdien bidez antolatzen da eta, nagusiki, garrantzi bereziko planeta-sistemen multzoak hartzen dira aintzat. Badira deialdi hori berezi bihurtzen duten xehetasun partikularrak, eta, nolabait, mundu-mailako dimentsioa ematen diotenak. 2022an, NABk bere Astronomia Hedapenerako Bulegoaren (AHB) esku utzi zuen Name ExoWorlds 2022 lehiaketa antolatzea eguzkiz kanpoko hogeit hamar planeta-sistemari izena emateko. Oraingo honetan, Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako Hizkuntza Indigenen Hamarkadako (2022-2032) helburuekin bateragarriak diren proposamenak sustatu ditu deialdiak.

Espaniako proposamenak

AHBren nodo nazional bakoitza beren komunitatetik zetozen proposamenak hautatzeaz eta lehenestez arduratu zen. Espainiako nodoak baliozko hogeita bi proposamen jaso zituen, eta lehiaketaren arauen arabera, hiru garrantzitsuenak lehenetsi zituen. Prozesu horretan, bereziki baloratu zen taldeen zeharkako izaera eta eragin handiko dibulgazio-kanpainak egin

izana, bai era presentzianean, bai sarean. Espainiako hiru proposamen horietatik, orain NABk bi aukeratu ditu haien izenak ofizial izan daitezzen zeruko izendegian.

‘Gar’ eta ‘Su’, euskal proposamena

GJ 486 izarra, Virgon, Eguzkitik 27 argi-urtera dagoen nano gorri bat da. Haren inguruan orbitatzen du Lurra baino hiru aldiz masiboagoa den planeta harritsuak. Hemendik aurrera, izarrek Gar izena izango du, eta bere planeta Su izenaz ezagutuko da. Hitz horiek «sugarra» eta «sua» esan nahi dute euskaraz eta, nolabait, berekin grina eta gogoaren esanahia ere adierazten dute, «su eta gar» adierazmoldean bezala. Proposamena egin duen taldeak, buru duen Itziar Garate-Lopezekin eskutik, komunikazio lan handia garatu du azkenaldion, eta [Gar+Su](#) atarian eman du ezagutzera. Aipatu beharra dago Su planetaren aurkikuntza Espainiatik bertatik gertatu dela, Calar Alto Behatokiaren eta Carnenes haren espektrografoaren funtsezko ekarpenarekin.

‘Filetdor’ eta ‘Catalineta’, Mallorcako proposamena

Sebastià Barceló Forteza buru duen taldeak katalanezko izenak proposatu zituen WASP-166 izarren planeta-sistemarako, Hidra konstelazioan eta Eguzkiaren 370 argi-urteetara dagoena. Sistema honen planeta Jupiterren erdia baino gehixeagoko masa duen gas-erraldoi bat da. Izarrak Filetdor izena jasoko du aurrerantzean, eta planeta Catalineta bezala ezagutuko da. Izarraren izenak, Filet d'Or, itsas suge urreztatuari egiten dio erreferentzia, hots, Mallorcako ahozko tradizio baten protagonista nagusia (*rondalla*). Alegia honetan, neska txiki batek, hots, planetari izena ematen dion Catalinetak berak, abentura harrigarria biziko du itsas sugearekin ustegabeko topaketa eginda. Proposamena egin duen taldearen dibulgazio-ekintzak [Es Nostro Cel](#) atarian biltzen dira.

Beste proposamen batzuk

AHBren Espainiako nodoak hautatutako hirugarren proposamenak Al Andalus eta Al Hamra izen arabiarrek iradokitzen zituen, eta Antonio Quesada Ramos buru duen taldeak egin zuen. Haiek proposatutako izenak eta azkenean euskal deitura hartu dituztenak, biek ala biek sistema bera zuten gogoan. Al Andalusera Erdi Aroko Espainia arabiarren izena da, eta Al Hamrarena (literalki, «gorria») gaur egun Alhambra izenez ezagutzen dugun Granadako errege-gotorlekuaren jatorrizko izena da.

Planeta-sistema horien izendapen berriak laster ofizialduko dira, eta modu horretan, euskal eta balear kultura tradizionalak beren lekua izango dute Galaxian. Izen espainol horiek, Name ExoWorlds aurreko edizioetan aukeratuak izan ziren Cervantes (2015) eta Rosaliadecastro (2019) izarrekin eta bakoitzaren planetekin (Quijote, Dulcinea, Rocinante eta Sancho planetak lehenengoarentzat, eta Riosar bigarrenarentzat) bat egingo dute. Eta hala, Espainiako lau hizkuntza ofizialek izango dute, gaurtik aurrera, beren tokia ortzimuga luze-zabalean.

Erantsitako irudiak:

- Name ExoWorlds 2022 lehiaketaren irudia
- Sistema planetario baten errekreazio artistikoa
- Su planetaren azalaren irudi artistikoa

Orain Su izendaturiko GJ 486b superlur beroaren azalaren irudikapen artistikoa. 430 °C-ko azaleko tenperatura izanik, ereduak haren paisaia Artizarren antzekoa izatea iragartzen dute; lehorra, beroa eta labazko ibai beroz zipiztindua. Litekeena da Su planetak atmosfera ahula izatea.

Informazio gehiago eta elkarrizketen kudeaketa:

Anna Boluda

Responsable comunicación SEA

prensa@sea-astronomia.es

Tel. 619774516

Euskal proposamenaren kontaktuak:

- Itziar Garate Lopez (responsable) – Euskal Herriko Unibersitatea (UPV/EHU)
Tel. 649 281 825
- Jose Antonio Caballero – Centro de Astrobiología
Tel. 619 652 011

Balearretako proposamenaren kontaktuak:

- Sebastià Barceló Forteza (responsable) – Universidad de Granada
Tel. 606270279
- Albert Domingo Garau – Centro de Astrobiología
Tel. 686257053

Granadako proposamenaren kontaktua:

- Antonio Quesada Ramos – IES Zaidín-Vergeles
Tel. 660 776 696

Espainiako NOC-aren kontaktuak:

- Ana Ulla Miguel (NOC) – Universidade de Vigo
Tel. 647 742 458
- David Galadí Enríquez (ViceNOC) – Observatorio de Calar Alto
Tel. 605 667 810
- Amelia Ortiz Gil (asesora NOC) – Universitat de València
Tel. 651 747 256

Loturak:

Name ExoWorlds: <https://www.nameexoworlds.iau.org/>

Name ExoWorlds 2022: <https://www.nameexoworlds.iau.org/2022edition>

Nazioarteko Astronomia Batasuna (NAB): <https://www.iau.org/>

Nazioarteko Astronomia Batasunaren Astronomia Hedapenerako Bulegoa (AHB):
<https://www.iau.org/public/oao/>

gar+su: <http://exoterrae.eu/gar+su.html>

Es Nostro Cel: <https://es-nostro-cel.com>

Astronomia Hedapenerako Bulegoaren(AHB) Espainako nodoa (NOC-Spain):
<https://www.sea-astronomia.es/noc>